

7

Metroko abentura



Gaur metroan noa. Askotan joaten naiz metroan, baina gaur, berezia da. Eta zergatik den berezia?

Txartela atera dut, zirrikituan sartu dut, atea zabaldu zait, eskailerak jeitsi ditut, eta metroan sartu naiz.

Gero, gauza polita gertatu da: metroa gelditu egin da, eta jendea zarataka hasi da, zeren bagoia ilunpetan geratu da.

Gizon batek kandela bat atera du, piztu eta argia egin da bagoian. Gero, gizonak esan digu bagoiko guztioi:

- *Tira, ez dakigunez zenbat denbora pasatu beharko dugun hemen, jolas egin dezakegu.*

Eta orritxo batzuk atera ditu. Orri bakoitzean letra bat zegoen idatzita, eta bat aukeratu du.

- *Hatxe*- esan du.

Gizonak jolasa ondo azaldu digu: berak letra bat ateratzean, egin behar duguna da letra horrekin hasten den hitz batekin istorio bat kontatu.

- *Nik badut hitz bat*- esan du gizon txiki batek- **HODEIA**.

Eta istorio hau kontatzen hasi da:

- Hegazkineko pilotua izan naiz urte askotan. Beti hara eta hona hegazkinean. Bizitza zeruan pasatu dut beti.

Egun batean hodeiak aztertzen hasi nintzen. Eta ikusi nuen txerrikume-itxurako hodei bat, liburu-itxurakoa beste bat...

Forma guztietako hodeiak ikusi nituen, oso politak. Baina, egun batean, hodei bati begiratu eta begiratu eta ez nion itxurarik hartzen. Eta kostata, baina azkenean antzeman nion itxurari.

- Eta zeren itxura zuen bada?- galdetu diot.

Eta gizonak irribarre egin du eta plop! eginez, hodei bihurtu da, eta esan du:

- Bada, hodei forma zuen.

Eta hori esanda, bagoiko zirrikitu batetik atera da lasai-lasai.

JULEN GABIRIA

Metro bateko letrak (moldatua)

zirrikitu: hutsune txikia.



Irakurgaia lantzen

ULERMENA

1- Esan esaldi hauek egia (E) ala gezurra (G) diren.

- Neskatoa autobusean doa. ☐
- Neskatoa askotan joan da metroan bakarrik. ☐
- Metroa gelditu egin da. ☐
- Bagoia erre egin da. ☐
- Gizon batek linterna atera du. ☐
- Bagoia ilunpean geratu da eta jendea zarataka hasi da. ☐
- Gizon bat zorabiatu egin da. ☐
- Gizon batek jolas bat proposatu du. ☐



2- Kontatu zure hitzez gizonak proposatutako jolasa.

EGITURA

3- Ordenatu irudiak eta idatzi gertatu zena.



1-

2-

3-

4- idatzi labur-labur metroan gertatutakoa.

*Egun batean neska bat metroan zihoan bakarrik eta metroa gelditu
egin zen.*